

Barnera begirako nobela krudela ondu du Serranok

‘Euri gorriaren azpian’ nobelarekin amaitu du ‘Erlojugileak’ lanarekin hasitako trilogia

Harri X. Fernández | @harrifernandez

08/10/24 | 21:57



Asier Serrano idazlea / RUBEN PLAZA

Asier Serrano bilbotarrak barnera begirako bidaia “**krudela**” eta “**bortitza**” ondu du bere nobela berrian. Horrela definitu zuen Ereingo editore **Uxue Razquín**ek Euri gorriaren azpian eleberria, astearte honetan **Donostiako Liburutegi Nagusian** eskainitako prentsasurekoan. Kontakizun lohitsu eta latza bada ere, “sinbolismoz, “irudi metaforikoz” eta “poetikaz” beteriko estiloa erakutsi du bere **narrazioan**.

Estatu kolpea

Hiri ezezagun batean, orain **25 urte Estatu kolpe** bat eman zuten egun **berean ezagutu** ziren bi protagonistak: emakume idazle bat eta **gizon antzezle** bat. **Zazpi urteko diktadura eta 18 urteko “ustezko”** demokraziaren ostean, emakumea hirira itzuliko da hiltzorian **dagoen** gizonari **agindutakoa betetzera**. Hauxe da Euri gorriaren azpian idazlanaren argumentua. Autoreak berak ez zuen **edukiaren inguruan** askoz gehiago kontatu nahi izan, **spoilerak ekiditeko**.

Halere, bazuen bai, esateko **bestelako gauza franko**. Orain bost urte hasi omen zen idazketa prozesuarekin eta handik hona kontakizuna “orraztu” egin duela **azaldu zuen**. Bi kontzepturen gainean eraiki du Serranok bere azken nobela: autoreen idazteko pultsioaren inguruko hausnarketa, eta **Erlojugileak** eta **Abisaliarekin** hasitako ustezko trilogia bukatu beharra. “Gerra”, “boterea” eta “etika” ziren liburu bakoitzari egokitu nahi **izan zizkion** kontzeptu giltzarriak. “Pandemiaren ostean konturatu naiz botereaz hitz egiten dutela guztiek”, gaineratu zuen. **Zentzu horretan, Euri gorriaren** azpianek “sorkuntzaz” hitz egiten du, bai; baina, bereziki, autoritateari sormenetik aurre egiten dioten baztertutako pertsonak izango ditu **hizpide nobela honek**.

Sigue el canal de Noticias de Gipuzkoa en WhatsApp, donde encontrarás las noticias más destacadas de la actualidad.

TEMAS Liburuak

LO MÁS VISTO

1. Detenido por repostar 15.000 euros de combustible con cargo a la empresa que le despidió
2. ¿Qué opina Estopa sobre la inmigración? Las declaraciones del dúo que se viralizan en redes
3. Sánchez avanza que en las próximas semanas impulsará la nueva ley de Familias
4. Francia devuelve el material del desarme de Luhuso
5. Miles de personas huyen del azote del huracán 'Milton' en Florida



Inscríbete a nuestra Newsletter
Disfruta de todas las novedades

Inscríbete

MÁS EN CULTURA



BERTAN

Las maestras (1880-1936), tema de la beca Mercedes Careaga

Aitor Zabala



CULTURA

Barnera begirako nobela krudela ondu du Serranok

Harri X. Fernández



CULTURA

Xaguxarraren radarpean, umeentzako beste hiru ipuin ilustratu

Harri X. Fernández



ORTZADAR

“Artea informatzeko edo mezu batzuk helarazteko modu bat da”

Ane Maruri



Otras webs de Grupo Noticias

Deia
Diario Noticias de Alava
Noticias Taldea Multimedia (NTM)

Diario de Noticias
Noticias de Gipuzkoa
Onda Vasca

Más información

Distribución
Mapa web
Tarifas de publicidad

Trabajos Impresión
Suscripción por RSS

Compartir una noticia

 Facebook

 Twitter

 Linkedin

 Whatsapp

 Telegram

 Correo electrónico